



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 26a

77. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa. Foru Araubideko Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, erakunde publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak balio artistiko eta historikoko eraikinetan egindako inbertsioei eta gastuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, NAIren, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta berdintasuneko teknikariak dituzten toki erakundeen artean lan-mahai bat sortze aldera eta Berdintasunaren Nafarroako Behatokia sortze aldera Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak zertan diren jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, untxi-ugalketak nekazaritzan eragindako kalteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Tuteran Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio diagnostikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko 29 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Irakasleentzako Laguntza Zentroko 6 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa.

FORU ARAUBIDEKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139.3 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Araubideko Batzordeak honako Nafarroako Kontseiluari buruzko foru lege proposamenari buruz onetsitako irizpena. Proposamen hori 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

IRIZPENA

Foru Araubideko Batzordeak onetsia, 2016ko maiatzaren 18an eta 25ean eginiko bilkuran

Foru Lege proposamena, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 28. ter artikulua, urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak emandako testuaren arabera, xedatzen du Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia dela, eta bere funtzioak autonomia organikoarekin eta funtzionalarekin betetzen dituela, objektibotasuna eta independentzia bermatze aldera. Hala-ber, xedatzen du foru lege batek arautuko dituela Nafarroako Kontseiluaren osaera, hautaketa, eskudantziak, araubide juridikoa eta funtzionamendua.

Nafarroako Kontseiluari 1999an ezarri zitzaion araubide juridikoa gaurkotu eta haren funtzionamendua hobetzeko, autonomia organiko eta funtzionala duen organo aholku-emaiela den alde-tik, eta haren kideen kualifikazio tekniko zorrotza, neutraltasun politikoa eta inpartzialtasuna bermat-zeko, bidezkoa da erakunde hori foru lege honen bitartez arautzea.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Izaera

1. Nafarroako Kontseilua Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile gorena da.

2. Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak autonomia organiko eta funtzional bezala beteko ditu, objektibotasuna eta independentzia bermatze aldera.

3. Bere eginkizunetan diharduela, Nafarroako Kontseiluak ordenamendu juridikoa gordetzen dela begiratuko du. Abaguneari eta komenigarritasunari dagozkien alderdiak baloratuko ditu gaiaren izaerak horretara behartzen duenean edo kontsulta egin duen agintariak berariaz eskatzen duenean; halaber, baloratuko du Administrazioak eraginkortasun handiagoa izatea bere helburuak betetzerakoan.

4. Kontseiluari aholkua eskatzea nahitaezkoa izanen da hala ezartzen denean lege honetan edo beste batzuetan, eta gainerakoetan aukerakoa izanen da.

5. Kontseiluaren irizpenak idatziz emanen dira beti eta ez dira lotesleak izanen, legez kontrakoa esaten ez den bitartean.

II. KAPITULUA Osaera eta antolamendua

2. artikulua. Kontseilukideak.

1. Kontseilua bost kidek osatuko dute, izen aitortua eta gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientzia izan eta nafar izaera politikoa daukaten juristen artean izendatuak.

2. Nafarroako Kontseiluko kideak zortzi urtez izendatuko dira eta ezin izanen dira berriz hautatuak izan.

3. Kontseilukideak independenteak izanen dira eta ezin izanen dira kargutik kendu.

3. artikulua. Nafarroako Parlamentuak eginiko hautaketa.

1. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari dagokio hautatzea, gehiengo osoz, Nafarroako Kontseiluko kide izendatuak izateko proposatuko diren pertsonak.

2. Kontseiluan postu huts bat suertatzen denean, hilabeteko epean jarriko da abian hura betetzeko prozedura, hurrengo idatz-zatietan xedatuari jarraituz. Nolanahi ere, postu hutsak banaka bete beharko dira, postu huts bat baino gehiago betetzeko prozedurak metatzen utzi gabe.

3. Honakoek proposatu ahalko dituzte postu hutsak betetzeko izangaiak:

a) Parlamentu-talde batek edo batzuek.

b) Nafarroako abokatu-elkargoek edo, kasua bada, Nafarroako Abokatu Elkargoen Kontseiluak.

c) Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak.

4. Proposamenarekin batera, izangai bakoitzak bere onarpena adierazten duen ekidazki bat aurkeztuko da.

5. Nafarroako Parlamentuak, hautaketa egiten den Osoko Bilkuraren saioa egin baino lehen, izangaia edo izangaiak deituko ditu arloan eskuduna den batzordean agertzeraz, beren merezimenduak azal ditzaten.

4. artikulua. Izendapena eta karguaz jabetzea.

1. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak hautatu den pertsonaren izena jakinaraziko dio Foru Komunitateko lehendakariari, izenda dezan.

2. Izendatu eta hurrengo hogeita hamar egun naturalen barruan jabetuko dira karguaz kontseilukideak, zin eginez edo hitz emanez Nafarroako foru araubidea beti errespetatuko dutela, Konstituzioari eta legeei men egiten dietela eta beren karguari dagozkien betebeharrak zintzo beteko dituztela.

5. artikulua. Antolamendua.

1. Nafarroako Kontseiluaren eraketa baliozkoa izan dadin, bilkurak eta eztabaidak egin eta erabakiak hartzeari dagokionez, beharrezkoa izanen da gutxienez ere kideetatik hiru bertaratuta egotea.

2. Kontseiluburua kontseilukideen artean hautatu da, gehiengo osoz eta isilpeko bozketan. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketa bat egiten da. Horretan boto gehien eskuratu duen pertsona joko da hautatuztat. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egiten da, eta berdinketa errepikatu egiten bada, kontseilukiderik zaha-

rrena suertatuko da hautatuta. Kontseiluburua hautatu ondoren, Foru Komunitateko lehendakariari proposatuko zaio hura izenda dezan. Kontseiluburuaren agintaldiak gehienez lau urte irauten du, eta ezin izanen da berriz hautatu.

3. Kontseiluburuaren kargua hutsik badago, edo kontseiluburua kanpoan edo eri dagoenean, haren ordeaz ariko da idazkari ez den kiderik adindua, beste bat hautatu edo ordezkapenaren zergatia desagertu arte.

4. Kontseiluko idazkaria kontseilukideen artean hautatu da, gehiengo osoz eta isilpeko bozketan. Gehiengo osoa lortzen ez bada, beste bozketa bat egiten da. Horretan, boto gehien eskuratu duen pertsona suertatuko da hautatua. Berdinketarik gertatuz gero, beste bozketa bat egiten da, eta berdinketa errepikatu egiten bada, kontseilukiderik gazteena izendatuko dute. Kontseiluko idazkaria hautatu ondoren, Foru Komunitateko lehendakariari proposatuko zaio hura izenda dezan. Kontseiluko idazkariaren agintaldiak gehienez lau urte irauten du, eta ezin izanen da berriz hautatu.

5. Idazkariaren kargua hutsik badago, edo idazkaria kanpoan edo eri dagoenean, haren ordeaz ariko da lehendakari ez den kiderik gazteena, beste bat hautatu edo ordezkapenaren zergatia desagertu arte."

6. artikulua. Kontseiluaren Osoko Bilkuraren eginkizunak.

1. Kide guztiek eratzten duten Osoko Bilkuran bildurik, honako eginkizunak dagozkio Nafarroako Kontseiluari:

a) Irizpenak onestea.

b) Funtzionamendurako barne arauak onestea.

c) Aurrekontuen eta kontuen aurreproiektuak onestea.

d) Plantilla organikoa, langileen zerrenda eta enplegu eskaintza publikoa onestea.

e) Urteko oroitidazkia onestea.

f) Errekurtso administratiboak ebaztea.

g) Nafarroako Kontseiluari dagozkion eta inongo beste organori esleituta ez dauden gainerako eginkizunak.

2. Kontseiluaren erabakiak baliozkoak izateko, kideen gehiengo osoa bertaratuta egotea beharrezkoa izanen da, eta, betiere, kontseiluburua eta idazkaria edo zuzenbidearen arabera haien ordeaz dihardutenak.

3. Erabakiak hartuko dira bertaratzen diren kideen gehiengoaren botoaz. Berdinketarik gertatuz gero, kontseiluburuaren kalitatezko botoa izanen da erabakigarri.

7. artikulua. Kontseiluburutzaren eginkizunak.

Kontseilukide den partez dagozkionez gain, kontseiluburuak honako eginkizunak ere izanen ditu:

- a) Nafarroako Kontseiluaren ordezkariak.
- b) Kontseiluaren bileretarako deia egitea, eta bileretako buru eta zuzendari izatea.
- c) Gaiak kontseilukideen artean banatzea, haien gaineko txostena egin dezaten, sarrera-ordena kronologikoaren arabera banaketa-sistema baten bitartez.
- d) Kontseiluaren gastu-espeditentak baimentzea idazkariak haiek izapidetu baino lehen, bai eta 15.000 eurotik beherako kontratuak ere.
- e) Erregelamendu organikoak finkatzen dituen gainerako eginkizunak.

8. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.

Kontseilukide den partez dituen eginkizunetaz gain, idazkariak beste eginkizun hauek ere izanen ditu:

- a) Kontseiluko langileen burutza izatea, horren barne diziplina-ahalmena dela.
- b) Kontseiluaren bilkuretarako behar den dokumentazioa aztertu eta prestatzea.
- c) Kontseiluaren bilkuren akta egitea.
- d) Kontseiluaren egiaztatze- eta jakinarazpen-organoa izatea.
- e) Erregelamendu organikoak finkatzen dituen gainerako eginkizunak.

9. artikulua. Kargu-uztea.

1. Kontseilukideek honako arrazoiren batengatik utziko dute kargua:

- a) Uko egitea.
- b) Hiltzeagatik.
- c) Kargualdia amaitzea.
- d) Ezusteko bateraezintasuna.
- e) Eginkizunen ez-betetze larria.
- f) Doluzko delituagatik zigorra izatea, epai irmoaren ondoriozkoa.
- g) Ezintasuna, ebazpen judizial irmoaren bidez deklaratu.

h) Nafartasun politikoa galtzea.

2. Kargu-uztea Foru Komunitateko lehendakariaren foru-dekretu bidez gauzatuko da. Aurreko idatz-zatiko d) eta e) letretan aurreikusitako kasuetan eskatuko da Nafarroako Gobernuak bere kabuz nahiz Nafarroako Parlamentuaren eskariz izapidetutako espeditentea, eta interesdunari eta Kontseiluari entzunaldia emanen zaie.

Goiko a), c) eta h) letretako kasuetan, kontseilukideek beren eginkizunetan jardunen dute, ordezkoa izendatu arte eta karguaz jabetzen den arte.

10. artikulua. Etetea.

Nafarroako Gobernuak, Kontseiluaren eskariz eta haren iritzia entzun ondoren, kontseilukide-jarduna eten ahalko du 9.1. artikuluko d) eta e) letretan adierazitako kargu-uzte arrazoiei buruz ebazteko behar den ezinbesteko eperako, eta, halaber, auzipetzea edo akusazio penal irmoa gertatzen den kasuetan.

11. artikulua. Betebeharrak.

Nafarroako Kontseiluko kideak behartuta egon diren normaltasunez joatera jorratu beharreko gaiei buruzko eztabaidarako bilkuretara eta deitzen zaien gainerakoetara; eskatzen zaizkien azterlan, ponentzia eta lanak –beren karguari dagozkionak– egitera, eta jarduketa eta eztabaidei buruzko sekretua gordetzera.

12. artikulua. Bateraezintasunak.

Indarra duen beste edozein arau aplikatzearen ondorioz izan ditzakeen bateraezintasunez gain, Nafarroako Kontseiluko kide izatea kargu hauekin bateraezina izanen da:

- a) Nafarroako Gobernuak kidea.
- b) Europako Batasuneko, Estatuko, autonomi erkidegoetako zein toki entitateetako erakundeetako edozein kargu hautetsi.
- c) Alderdi politiko, sindikatu edo enpresario erakunde bateko edozein zuzendaritza-kargu.
- d) Fiskal edo epaile karreretan jardunean egotea.
- e) Herri lan edo zerbitzu publikoen emakidadun edo kontratista diren enpresetako edozein zuzendaritza-kargu.

13. artikulua. Ordainsariak.

1. Kontseilukideek eskubidea izanen dute Kontseiluaren lan bilkuretara joategatik erregelamenduz ezartzen diren mantenu-sariak jasotzeko.

Egun bakoitzeko ez da sortuko mantenu-sari bat baino gehiagorako eskubiderik.

2. Horrez gain, kontseilukide guztiek eskubidea izanen dute erregelamenduz ezartzen den diru-ordaina jasotzeko, irizpenetarako txostenak egitea-gatik.

III. KAPITULUA

Eskumena eta funtzionamendua

14. artikulua. Irizpenak

1. Nahitaez, honako afera hauetan eskatu beharko da Nafarroako Kontseiluaren aholkua:

a) Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzea.

b) Estatuko oinarritzko legedia garatzeko edo Europako erkidegoko zuzenbidearen transposizioa egiteko eman beharreko foru legeen aurreproiektuak egitea.

c) Nafarroako Kontseiluaren antolamendua, eskumena eta funtzionamendua ukitzen duten foru legeen aurreproiektuak edo administrazio-xedapenen proiektuak.

d) Legegintzako foru dekretuen proiektuak, tributu-harmonizaziokoak izan ezik.

e) Konstituziokontraktotasun errekurtsioak eta Konstituzio Auzitegiaren aurreko eskumen-gatazkak.

f) Foru Komunitateak Estatuarekin eta autonomi erkidegoekin sinaturiko hitzarmen eta lankidetzak akordioak, horiek sinatzeko Nafarroako Parlamentuaren aurretiazko baimena behar denean, eta horiei buruzko edozein zalantza edo desadostasun.

g) Legeak betearazteko ematen diren erregelamenduen edo xedapen orokorren proiektuak, baita horien aldaketak ere, antolamendu hutsezkoak izan ezik.

h) Foru Komunitateko Administrazioaren esku-bide ekonomikoei buruzko transakzioak –epaiketa bidezkoak zein epaiketaz kanpokoak– eta aipatu eskubideei buruz sor daitezkeen gatazkak arbitrajepean jartzea, baldin eta, bi kasu horietan, auzigaia berrehun eta berrogeita hamar mila euro baino gehiagokoa bada. Edonola ere, kontsulta ez da nahitaezkoa izanen berariazko araudian aurreikusitako prozesu konkurtsaletako akordio eta hitzarmenetan.

i) Ondare-erantzukizuneko erreklamazioak, zeinetan hirurehun mila euroko edo gehiagoko kalte-ordaina eskatzen den.

j) Legearen arabera Nafarroako Kontseiluaren nahitaezko txostena edo aholku-organo baten irizpena behar duen beste edozein gai.

2. Halaber, Nafarroako Kontseiluak irizpena emanen du aukerako kontsulta gisa helarazten dizkioten gai guztietan, Nafarroako Gobernuak bere ekimenez hala erabakita eta bere lehendakariaren bitartez eskatzen duenean, edo zuzenbide publikoari loturiko Nafarroako entitate edo erakundeek eskatuta, edo Nafarroako Parlamentuak bere lehendakariaren bitartez hala eskatzen dionean, honako hauen ekimenez. Eledunen Batzarra, Legebiltzarreko Mahaia, bi parlamentu-talde, foru parlamentarien bosten bat edo Nafarroako Arartekoa, azken horren kasuan herritarren eskubideak defendatu eta babesteko egindako ikerketen kariatara.

3. Kontseiluak txostena emandako gaiei buruzko xedapen eta ebazpene adierazi eginen dute Kontseiluaren irizpenaren arabera emandakoak diren ala hartatik urruntzen diren.

15. artikulua. Irizpena eskatzea.

1. Nafarroako Gobernuko lehendakariari eta Nafarroako Parlamentuko lehendakariari dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpenerako eskabidea egitea.

2. Nafarroako toki entitateetako buruei eta beste korporazio, erakunde edo entitate publikoen ordezkariak berenganatua duten organoei dagokie Nafarroako Kontseiluaren irizpena eskatzea, indarra duen legeriaren arabera nahitaezkoa den kasuetan.

16. artikulua. Irizpenen onespina eta publizitatea.

1. Irizpenak Kontseiluaren Osoko Bilkurak onetsiko ditu. Gehiengoak hartzen duen erabakiaren edo haren arrazoiketaren aurkako iritzia dutenek idatziz azaldu ahalko dute beren boto partikular arrazoitua, zeina irizpenari erantsiko baitzaio.

2. Onesten direnetik hilabeteko epean argitaratuko dira Kontseiluaren irizpenak, haren erregelamendu organikoan aipatzen diren bideetatik.

17. artikulua. Epeak.

Eskuarki, Nafarroako Kontseiluak berrogeita bost egun balioduneko epean eman beharko ditu eskatzen zaizkion irizpenak. Organo eskatzaileak espedientea presakoa dela justifikatzen duen kasuetan, Kontseiluak epea hamabost egun baliodunera arte jaitsi ahalko du.

Salbuespen gisa, Kontseiluak, ebazpen arrazoitu bidez, epe orokorra luzatu ahalko du, gehie-

nez ere hogeita hamar egun baliodun gehiago. Aipaturiko ebazpena txostena eskatu duenari jakinaraziko zaio.

Kontseiluak irizpenik ematen ez badu adierazitako epean, izapidea beteta dagoela eta aholkua eskatu zaion gaiari buruz eragozpenik ez dagoela ulertuko da.

18. artikulua. Dokumentazioa.

Kontsulta eskaerarekin batera, aztertuko den aferaren inguruko dokumentazio osoa aurkeztu beharko da. Kontseiluak uste badu espedientea osorik ez dagoela, kontseiluburuaren bitartez eskatu ahalko ditu beharrezkotzat jotzen diren aurrekari, txosten eta probak. Kasu horretan, irizpena emateko aurreko artikuluan ezarri epea eten egingen da; behin baino ez, betiere.

19. artikulua. Alde interesatuei entzutea.

Kontseiluaren aztergai jartzen diren aferetan interesa duten aldeei entzunaldia eman ahal zaie Kontseiluburuak erabakiko du entzunaldia egitea, interesdunek eskatuta edo bere kabuz. Entzunaldi hori beti egingen da administrazio publiko batek kontsultan zuzeneko interesa izan eta hala adierazten badu.

20. artikulua. Adituen txostenak eta parte-hartzea.

1. Kontseiluak administrazio publikoei eta bestelako erakunde publikoei irizpena emateko beharrezkotzat jotzen dituen aurrekari, txosten tekniko edo dokumentuak eskatu ahalko dizkie.

2. Kontseiluak, halaber, aztergai jartzen zaizkion aferetan gaitasun tekniko nabarmena duten pertsonen parte-hartzea eskatu ahalko du, txostena egin dezaten; kontratu publikoei buruzko foru lege-dia zaio enkargu horri aplikatzekoa. Kasu horretan, Kontseiluaren azken irizpenean adierazi beharko da zehazki zer eskatu zaien txosten-eskabidean, eta irizpenarekin batera aurkeztuko da.

21. artikulua. Oroit-idazkia.

Kontseiluak urtero oroit-idazkia prestatu eta Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari igorriko die. Bertan, aurreko ekitaldiko jarduna azaldu eta jarduketa juridiko-administratiboa hobetzeko egoki deritzen iradokizunak aurkeztuko ditu.

IV. KAPITULUA

Araubide juridikoa, ekonomiko-finantzarioa eta langileei buruzkoa

22. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Nafarroako Kontseiluari ezarriko zaio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplika-

tzekoa den araubide juridiko bera, kontratazioari, erantzukizunari, gardentasunari eta administrazio-edo barne-araubidekoak diren gainontzeko arloei dagokienez.

2. Kontseiluburuak Kontseiluko administrazio-edo barne-araubidearen arloan emandako egingen aurka jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko da, Kontseiluko Osoko Bilkurari zuzendua. Kontseiluak arlo beretan hartzen dituen erabakiek amaiera emanen diote bide administratiboari.

23. artikulua. Ekonomia- eta finantza-araubidea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari aplikatzekoa zaion ekonomia- eta finantza-araubideari loturik egonen da Nafarroako Kontseilua.

2. Nafarroako Kontseiluak bere urtealdi-aurrekontuaren aurreproiektua prestatuko du, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan sartua izateko, programa independente gisa.

3. Nafarroako Kontseilua, independentzia organiko eta funtzionala badu ere, Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko arau orokorren menpe egonen da.

24. artikulua. Langileak.

1. Nafarroako Kontseiluaren zerbitzuko langileen araubidea Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileei oro har aplikatzekoa zaiena izanen da.

2. Maila igoerako mugigarritasuna eta maila bereko mugigarritasuna Nafarroako Kontseiluaren, Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako Parlamentuaren artean aplikatuko dira. Horretarako, Nafarroako Kontseiluko funtzionarioek parte har dezakete Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako Parlamentuak egiten dituen lanpostu-betetze lehiaketetan eta txanda murriztuaren bidez lanposturatzeko hautaprobetan, eta alderantziz.

3. Idazkariak langile-aferetan emandako egingen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahalko da, Kontseiluko Osoko Bilkurari zuzendua.

Lehen xedapen iragankorra. Kargu-uztea.

1. Nafarroako Kontseiluko egungo kideek kargua utziko dute beren agintaldia amaitzen dutenean, aurreko araudian ezarritako epea laburtuz edo luzatuz, hurrengo idatz-zatietan xedatu bezala.

2. Foru lege honek indarra hartzen duenean, beren kargua utziko dute Nafarroako Gobernuak izendatutako Nafarroako Kontseiluko egungo bi kideek.

3. Foru lege honek indarra hartzearekin, bere kargua utziko du Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

4. Foru lege honek indarra hartu eta bi urteren buruan, bere kargua utziko du, kasua bada, Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

5. Foru lege honek indarra hartu eta lau urteren buruan, bere kargua utziko du, kasua bada, Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

6. Foru lege honek indarra hartu eta sei urteren buruan, bere kargua utziko du, kasua bada, Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren arabera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

7. Foru lege honek indarra hartu eta zortzi urteren buruan, bere kargua utziko du, kasua bada, Nafarroako Parlamentuak aurreko araudiaren ara-

bera hautatutako kideetatik karguan denbora gehien eman duenak. Antzinasun bera izanez gero, zozketa bidez hautatuko da nork utziko duen kargua.

Bigarren xedapen iragankorra. Berritzea

Behin aurreko xedapen iragankorrean araututako kargu-uzteak gertatuta eta Kontseiluko kideek beren kargua utzi ondoren, kargu horien berritzea egingen da, foru lege honetako artikuluetan xedatuaren arabera.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe uzten da Nafarroako Kontseiluari buruzko martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea, bai eta foru lege honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapen oro.

Azken xedapenetan lehena. Arauak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatzeko arauak emateko eta foru lege hau betetzeko behar diren neurriak hartzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

Galdera, erakunde publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak balio artistiko eta historikoko eraikinetan egindako inbertsioei eta gastuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erakunde publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak balio artistiko eta historikoko eraikinetan egindako inbertsioei eta gastuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

“EH Bildu Nafarroa” parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro

jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00136), ezagutu nahi baitu “administrazio publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak 2007tik gaur arte urtez urte finantzatu eta egindako proiektuen, inbertsioen eta gastuen zerrenda, jarduketa horietako bakoitzaren zenbatekoa eta titulartasuna nori dagokion zehaztuta”. Hona Kultura, Kirol eta Gazterriako kontseilariaren erantzuna:

Balio artistiko eta historikoko eraikinetan egindako jarduketei buruzko galderari dagokionez, ondoren erantsi dugu administrazio publikoek eta Vianako Printzea Erakundeak 2007tik gaur arte urtez urte finantzatu eta egindako proiektuen, inbertsioen eta gastuen zerrenda, jarduketa horietako bakoitzaren zenbatekoa eta titulartasuna nori dagokion zehaztuta.

2006-2007	Zarrakastelu, Olivako monasterioa Abade-elizaren estalkiak zaharberritzea, 1. fasea Olivako komunitate zistertarra	Kultur intereseko ondasuna 887.321,75 euro
2006-2007	Lizarra, Gobernariaren jauregia Karlismoaren museoa, 2. fasea: Nafarroako Gobernua	795.392,69 euro
2006-2007	Garinoain, Katalain Erdi aroko eraikina zaharberritzea, 1. fasea Garinoaingo Udala	Kultur intereseko ondasuna 308.147,36 euro
2007	Abartzuza, Irantzuko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 119.999,42 euro
2007	Abartzuza, Irantzuko monasterioa Antzinako logelaren eskailera zaharberritzea Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 131.024,20 euro
2007	Abartzuza, Irantzuko monasterioa Klaustroko hormartearen erreforma Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 265.264,34 euro

2007	Aria, Jamar eta Etxeberri etxeetako garaiak Zaharberritzea Partikularrak	Kultur intereseko ondasuna 134.741,92 euro
2007	Aiegi, Iratxeko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 59.993,98 euro
2007	Zarrakaztelu, Olivako monasterioa Abade-elizaren estalkiak zaharberritzea, 2. fasea Olivako komunitate zistertarra	Kultur intereseko ondasuna 1.042.469,78 euro
2007	Erriberri, gaztelua Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 179.998,86 euro
2007	Tutera, katedrala Klaustroa eta egoitzak konpontzea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 159.997,18 euro
2007	Uritz, Dorrea eta etxea Zaharberritzea, 2. fasea Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 556.409,85 euro
2007	Esa, Leireko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 119.925,49 euro
2007-2008	Aribe, Irati ibaiko zubia Zaharberritzea Aribeko Udala	320.585,01 euro
2007-2008	Lizarra, Gobernariaren jauregia Karlismoaren museoa, 3. fasea: Nafarroako Gobernua	1.819.572,65 euro
2007-2008	Galipentzu, Salvatore eliza Estaldurak zaharberritzea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 322.388,90 euro
2007-2008	Garinoain, Katalain Erdi aroko eraikina zaharberritzea, 2. fasea Garinoaingo Udala	Kultur intereseko ondasuna 322.890,03 euro
2007-2008	Sorlada, San Gregorio Ostiense Egonkortzea Iruñeko Artzapezpikutza	Garrantzi lokaleko ondasuna 939.305,21 euro
2008	Abartzuza, Irantzuko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 119.999,97 euro
2008	Aria, Apat etxeko garaia Zaharberritzea Partikularra	Kultur intereseko ondasuna 129.562,71 euro
2008	Aiegi, Iratxeko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 39.998,11 euro
2008	Erriberri, gaztelua Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 120.000,00 euro
2008	Iruña, errege jauregia, jauregiko lorategiko harresia Zaharberritzea Iruñeko Udala	Kultur intereseko ondasuna 238.941,09 eur

2008	Tafalla, Errekoletoen komentua Estalduak konpontzea Tafallako Udala	147.508,13 euro
2008	Uritz, Dorrea eta etxea Zaharberritzea, 3. fasea Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 842.926,29 euro
2008	Uritz, Dorrea eta etxea Urbanizazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 287.259,38 euro
2008	Esa, Leireko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 119.987,32 euro
2008-2009	Zarrakastelu, Olivako monasterioa Dorrea eta mendebaldeko fatxada zaharberritzea Olivako komunitate zistertarra	Kultur intereseko ondasuna 856.973,93 euro
2008-2009	Iruña, errege jauregia Zaharberritzea Iruñeko Udala	Kultur intereseko ondasuna 1.431.895,96 euro
2008-2009	Galipentzu, Salbatore eliza Portada zaharberritzea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 628.115,00 euro
2008-2009	Sorlada, San Gregorio Ostiense Egokitzea Iruñeko Artzapezpikutza	Garrantzi lokaleko ondasuna 960.398,65 euro
2008-2011	Martzilla, gaztelua Zaharberritzea Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 9.804.112,73 euro
2009	Aburrepea, gurutzea Zaharberritzea Aburrepeko Udala	Kultur intereseko ondasuna 31.926,00 euro
2009	Abartzuza, Irantzuko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 49.999,46 euro
2009	Aiegi, Iratxeko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 19.996,30 euro
2009	Erriberri, gaztelua Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 99.998,22 euro
2009	Esa, Leireko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 99.960,63 euro
2009-2010	Zarrakastelu, Olivako monasterioa Hegoaldeko fatxada zaharberritzea Olivako komunitate zistertarra	Kultur intereseko ondasuna 205.916,14 euro
2009-2010	Lizarra, San Pedro de la Rúa eliza Estalduak eta fatxadak zaharberritzea Lizarrako San Pedro eliz-parrokia	Kultur intereseko ondasuna 1.738.005,39 euro
2009-2010	Urraulgoiti, Santa Fe eliza Estalduak konpontzea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 260.235,54 euro

2010	Lizarra, San Pedro de la Rúa eliza Iparraldeko portada zaharberritzea Lizarrako San Pedro eliz-parrokia	Kultur intereseko ondasuna 133.799,06 euro
2010	Erriberri, San Pedro eliza Dorrea zaharberritzea, 1. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 99.984,33 euro
2010	Iruña, katedrala Pinakuluak konpontzea, aldamiok Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 138.398,35 euro
2010	Galipentzu, Andre Maria eliza Portada babestea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 59.669,57 euro
2010	Esa, Leireko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 119.940,65 euro
2010-2011	Lizarra, San Pedro de la Rúa eliza Barrualdea zaharberritzea, 1. fasea Lizarrako San Pedro eliz-parrokia	Kultur intereseko ondasuna 1.042.179,08 euro
2011	Uxue, Andre Maria eliza Hegoaldeko portada eta iparraldeko ataria zaharberritzea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 251.586,36 euro
2011-2012	Lizarra, San Pedro de la Rúa eliza Barrualdea zaharberritzea, 2. fasea Lizarrako San Pedro eliz-parrokia	Kultur intereseko ondasuna 1.960.898,99 euro
2011-2012	Fitero, monasterioa Klaustroa zaharberritzea, 3. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 904.628,19 euro
2011-2012	Iruña, katedrala Pinakuluak zaharberritzea, 1. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 872.111,14 euro
2012	Gergitiain, San Martin eliza Zaharberritzea Itzagaondoko Udala	Ondasun inbentariatua 321.344,98 euro
2012	Zubiri, Arga ibaiko zubia Zaharberritzea Zubiriko Kontzejua	Kultur intereseko ondasuna 109.863,52 euro
2012-2013	Fitero, monasterioa Klaustroa zaharberritzea, 4. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 959.532,04 euro
2012-2013	Erriberri, San Pedro eliza Dorrea zaharberritzea, 2. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 1.022.406,00 euro
2012-2013	Iruña, katedrala Pinakuluak zaharberritzea, 2. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 847.057,54 euro
2013	Zizur Nagusia, San Juan de Jerusalem eliza Dorreko estaldura konpontzea Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 47.221,93 euro
2013	Erriberri, gaztelua Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 109.959,15 euro

2013	Iruña, Rozalejoko markesaren jauregia Estalduak konpontzea Nafarroako Gobernua	510.270,64 euro
2013	Esa, Leireko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 40.199,93 euro
2013-2014	Fitero, monasterioa Klaustroa zaharberritzea, 5. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 759.126,48 euro
2013-2014	Tutera, katedrala Klaustroa zaharberritzea, 1. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 630.459,11 euro
2014	Abartzuza, Irantzuko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 69.998,16 euro
2014	Aiegi, Iratxeko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 73.302,07 euro
2014	Lizarra, Hilobi Santuaren eliza Estalduak konpontzea Lizarrako San Pedro eliz-parrokia	Kultur intereseko ondasuna 287.933,27 euro
2014	Fitero, monasterioa Liburutegiko estaldura konpontzea Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 51.690,08 euro
2014	Galipentzu, San Salbatore eliza Barrualdea eta kripta zaharberritzea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 351.501,92 euro
2014	Irurita, Dorrea Egonkortze-muntaia Baztango Udala	Kultur intereseko ondasuna 49.981,52 euro
2014	Lete, Iharteko monasterioa Nabeko estaldura konpontzea Partikularra	Kultur intereseko ondasuna 46.909,81 euro
2014	Erriberri, gaztelua Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 324.999,92 euro
2014	Orbaitzeta, Larrañeta etxeko garaia Zaharberritzea Partikularra	Kultur intereseko ondasuna 63.365,62 euro
2014	Besolla, Garbikundearen eliza Zaharberritzea, 1. fasea Partikularra	Ondasun inbentariatua 344.557,54 euro
2014	Esa, Leireko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 220.461,87 euro
2014	Zubiri, Arga ibaiko zubia Zaharberritzea, 2. fasea Zubiriko Kontzejua	Kultur intereseko ondasuna 85.760,35 euro
2014-2015	Fitero, monasterioa Klaustroa zaharberritzea, 6. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 886.200,50 euro

2015	Abartzuza, Irantzuko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 49.999,46 euro
2015	Aiegi, Iratxeko monasterioa Estaldurak konpontzea Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 79.512,85 euro
2015	Fitero, monasterioa Klaustroa zaharberritzea, 7. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 701.500,31 euro
2015	Geretz, San Sebastian eliza Estaldura eta hormak zaharberritzea Iruñeko Artzapezpikutza	Ondasun inbentariatua 274.810,67 euro
2015	Larunbe, San Bizente eliza Estaldura eta hormak zaharberritzea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 233.106,96 euro
2015	Erriberri, gaztelua Masustondoaren horma zaharberritzea Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 135.149,55 euro
2015	Erriberri, gaztelua Ardandegia eta San Jorge kapera zaharberritzea Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 235.944,97 euro
2015	Erriberri, Andre Maria eliza Mendebaldeko fatxada zaharberritzea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 175.379,43 euro
2015	Olleta, eliz-parrokia Estaldurak zaharberritzea, 1. fasea Olletako Jasokundearen parrokia	Kultur intereseko ondasuna 266.473,09 euro
2015	Iruña, katedrala Klaustroa zaharberritzea, 1. fasea Iruñeko Artzapezpikutza	Kultur intereseko ondasuna 152.875,20 euro
2015	Arrada, hustutako herria Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 36.300,00 euro
2015	Besolla, Garbikundearen eliza Zaharberritzea, 2. fasea Partikularra	Ondasun inbentariatua 159.069,16 euro
2015	Esa, Leireko monasterioa Kontserbazioa Nafarroako Gobernua	Kultur intereseko ondasuna 129.990,23 euro

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2016ko apirilaren 20an.

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Galdera, INAIren, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta berdintasuneko teknikariak dituzten toki erakundeen artean lan-mahai bat sortze aldera eta Berdintasunaren Nafarroako Behatokia sortze aldera Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak zertan diren jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Sáez Barrao andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, INAIren, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta berdintasuneko teknikariak dituzten toki erakundeen artean lan-mahai bat sortze aldera eta Berdintasunaren Nafarroako Behatokia sortze aldera Osoko Bilkurak onetsitako erabakiak zertan diren jakitekoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 8ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak onetsitako bi erabakiren betetze-mailari buruz (9-16/PES-00137). Hona Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

7. puntuari dagokionez, honako hau nabarmendu beharra dago:

Berdintasunaren aldeko Nafarroako Udalen Sarea garatzeko lan-mahai bat sortzeari dagokionez, esan beharra daukagu ezen Nafarroako Berdintasunerako Institutuak urte honetan zehar garatuko duela hori, programa-akordioaren egutegian jaso bezala eta INAIren 2016rako lan-helburuetan jaso bezala.

Hasteko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin bilera bat egin dugu, eta proiektuaren berri eman zaie; halaber, otsailean egin den berdintasuneko teknikarien bilera batean hori buruzko informazioa eman da. Bestalde, maiatzaren 6rako toki entitateetako langile politikoei lan-saio bat programatu dugu, non genero berdintasuna lortzeko bultzatu nahi diren politika publikoen arloko helburu eta proiektuen berri emanen dugu —horren barruan, proiektu hau ere bada-

go—, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko tokiko politikak egoki garatzeko behar den konpromiso eta parte-hartzea lortzeko xedez.

Bestalde, une hauetan, definitzen eta diseinatzeko ari gara udalen sare bat zer den, zertarako sortzen den, zein helburu eta eginkizun dituen eta abar. Behin hori eginda, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta berdintasuneko teknikariak dituzten toki entitateen arteko lan-mahai bat osatuko dugu.

Emakumeen indarkeriaren aurkako tokiko protokoloari dagokionez, jakitera eman behar dugu Nafarroako Berdintasunerako Institutuak, aurreikusita zegoen bezala eta urte horretarako lan-helburuetan jaso bezala, bigarren seihilekoan garatuko duela proiektu hau.

Horixe jakinarazi zaio bai Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, bai berdintasuneko eragileei, bai bilerak izan ditugun toki entitateei. Horretarako, dokumentazio administratiboa lantzen hasi gara, protokolo horren lanketarako kontratazio publikoaren deialdia egiteko.

8. puntuari erantzuteko, honako hau esan behar dugu:

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak 2016rako dituen helburuen artean, aurreikusia du bigarren seihilekoan hasiera ematea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren diagnostiko bat egiteko lanei, bai eta oinarrien dokumentu bati ere. Haietatik abiatuta, Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko lege berria egin ahalko da. Horrenbestez, gure ustez, Nafarroako Berdintasunaren Behatokia sortzeko ikuspegi egokiena finkatu egin beharra dago, eta zuzenean lotu beharra dago berdintasunari buruzko legearekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, untxi-ugalketak nekazaritzan eragindako kalteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, untxi-ugalketak nekazaritzan eragindako kalteei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 8ko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Alberto Catalán Higuera foru parlamentariak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00138) untxiek nekazaritzari egiten dizkion kalteei buruz. Hauxe erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariak:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al daki zein diren nekazariak eginiko eskaera berriak, gehiegizko untxi-ugaltzearen ondorioz haien soroetan izandako kalteen ondoriozkoak?

– 80ko hamarkadan, untxiek Nafarroako nekazaritzari eragiten zizkion kalteak orokorrak ziren, eta eragin handiagoa zuten Tuterako eskualdean, zainzurien laboreetan, zeren eta balio handiko labore bat baitzen hori.

80ko hamarkadaren amaieran eta 90ekoaren hasieran, pneumonia hemorragikoko gaixotasun bat izan zen, zeinak eragin baitzuen untxi-populazioak Nafarroa osoan desagertzea, honako salbuespen hauekin: Leireko Mendiak, Nekeen ingurua eta Tuterako SKFren plantaren lursailak. Toki horietan kalteak egoten jarraitu ziren.

Untxi populazioek gora egin dute, bai kopuruan, bai hedapenean, batez ere Erribera aldean, eta eskualde horretan dauden azpiegitura linealek (autobidea, autobia) lagunduta; izan ere, haien lubeta hesidunak oso habitat egokia da espezie horren garapenerako. Gaur egun, kalte handienak Ebro ibaiaren eskuineko ibai-bazterreko udalerrietan gertatzen dira.

– Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua, Biodibertsitate Zerbitzuaren bitartez, Agroseguro entitatearen eta ehiztarien tokiko sozietateen arteko komunikazioan laguntzen aritu 2012tik, hamabostean behin

ehiza barrutiei birbidaliz nekazariak entitateari aurkeztutako kalteei buruzko parteak. Hainbat laboretarako kalte-ordainen taula erantsi dugu, 2011-2015 aldiari buruzkoa.

– Bestalde, urtero, zerbitzu horrek laguntza ematen die ehizaren esleipen-hartzaileei untxiek kalteei aurre egiteko planak egiten kalte gehien gertatzen diren barrutietan, eta urtero toki horietako untxi-populazioen jarraipena egiten da, bai eta ehiztariak egiten dituzten harrapaketen jarraipena ere.

2.- Gobernuak zer deritze urteotan untxi-ugalketa kontrolatzen saiatzeko eginiko urratsak?

– Nekazariak, ehiztariak eta udalek modu koordinatuan lan egin eta untxi-populazioetan garai eta modu egokietan presioa egin den barrutietan, populazioa kontrolatzera iritsi da, untxiek eragiten dituzten kalteak minimizatuz. Horrek erakusten du nolako eraginkortasuna duen ehiza-jarduera bezalako presio bat erabiltzeak gehiegizko ugalketaren aurkako tresna gisa. Toki eta eskualde mailan gutxi koordinatutako presioa egitea izan da kalteek berriz gora egitea eragin duena.

– Aplikatutako neurriak eraginkorrak izan direla jotzen dugu. Hala ere, haien aplikazioa irregularra izan da ukitutako udaletan, ukitutako bi kolektiboen —ehiztariak eta nekazariak— arteko desadostasunak direla eta.

3.- Neurri berriak hartzearen alde al dago?


– Gure ustez, jada aipatu den bezala, untxi populazioetan presio egokia egitea eta ukitutako artean koordinazio ona izatea nahikoak izanen lirake. Horrela jakatuz gero, ez lirake neurri berriak behar; nahikoa izanen litzateke jada eraginkorrak izan direla egiaztatu direnak aplikatzea: untxi populazioen gaineko presio handia egitea ehizaren bitartez, halako moduz non haien dentsitateari eutsiko zaion kontrolatutako atalase batzuen barruan, eta, kasua bada, labore batzuk babesteko behar diren barrera fisikoak jartzea. Demonstratuta dago ehiztarien eta nekazarien arteko koordinazio jarraituaren bidez kalteak asko murriz daitezkeela. Agroseguroekin estalduramoten jarraipena egitea ezinbestekoa da, eta Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Zuzendaritzarekin koordinatuta egiten da hori, nekazaritza-aseguruaren estaldura egokia

konpentsatzeko. Estaldura horrek aplikatutako neurrien eraginkortasuna osatuko du.



– Untxi-populazioen jarraipenari dagokionez, 90eko hamarkadaren hasieran, Departamentuak urteko ibilbide batzuk ezarri zituen, zeinek aukera ematen baitute langile berekien bitartez barrutiz barruti untxien populazioaren dentsitatea ebaluatzeko. Aldi berean, sistema bat ezarri zen ehiza-aprobetxamenduetako titularrek urtero ibilbide ba-



tzuk egiteko eta lortutako datuak Departamentuari igortzeko. Populazioak kontrolatzeko sistema horiei gaur egun arte eutsi zaie. Bestalde, 2008tik, Departamentuak, ehiza-aprobetxamenduetako titularrekin lan eginez eta kalteei aurrea hartzeko planen esparruan, ehiztariak hileroko, urtearen zati handi batean, gaueko ibilbideak egiten dituzte beren barrutietako untxi-populazioak kontrolatzeko. Datu horiek Departamentuari igortzen zaizkio hileroko, eta bertan haien jarraipena egiten da.


NAFARROA





Untxi kopuruaren adierazlea Nafarroan (untxiak/km)











– Gobernuak aplikatzen azkar diren sistema batzuk ezarri ditu, ehiztariak modu azkar eta malguan jokatu ahal dezaten arrisku handieneko egoeretan.

– Barrutiei gonbita egiten zaie beste ehiztari batzuen parte-hartzea susta dezaten, populazio-adierazleak handiak direnean, espeziaren gaineko presio jarraitua lortzeko, txartel-salmentaren bitartez.

4.- Gai honen ardura duen departamentuak inolako bilerarik egin al du nekazariekin, udalekin eta ehiztari-elkarteekin, egoeraren jarraipena egiteko? Zehatz bedi noiz eta norekin, eta zer ondorio atera diren.

– 1995etik 2011ra, Ehiza eta Arrantza Ataleko teknikari bat izendatuta egon da urtean zehar ehiztariekin eta toki entitateekin harreman jarraitua izateko, kalteen berri izate aldera. Teknikari hori, gainera, astean bisita bat edo bi egiten zituen ehiza-arduradunekin.

– Gaur egun, Departamentuko teknikarien eta ehiza-arduradunen arteko harremana berdina erraza da, eta harreman horri eusten zaio bilerak eginenez, telefonoz edo bertatik bertarako bisiten bitartez.

– 2008an eta 2009an “untxiaren mahaia” deitu zena sortu zen, udalekin batera lan egiteko eta ukitutakoen artean beharrezkoa zen koordinazioa lortzeko, hain zuzen ere untxien kalteak ahal zen guztian murrizte aldera. Lan horren ondorioz, udal mailan ukitutako eragileen arteko koordinazioari heldu zitzaion. Emaitzak lankidetzaren horrek iraun zuten denboraren arabera izan ziren.

– 2008tik, urte horretan hasi baitziren egiten barrutietako kalteen prebentziorako planak (urteen arabera, 20-30 barruti inguru), gutxienez ere urtean bi bilera egiten dira haiekin, plan hori prestatu eta haren jarraipena egiteko.

– Halaber, Departamentuarekin harremanetan jarri eta untxien kalteei aurre egin ahal izateko laguntza eskatzen dioten udalekin batera lan egiten dugu. 2015ean eta 2016ko iragan diren hilabeteetan, Cintruenigokoa, Tuterakoa eta Ribaforadakoa izan dira zerbitzuarekin harremanetan jarri diren udal bakarrak.

– Apirilaren 20an, bisita bat egin zen kalteek ukitutako lursailera, eta gero bilera bat egin zen Cascante, Ablitas, Fitero, Monteagudo eta Tuterako udaletako ordezkariekin, nekazarien ordezkariekin eta ehiztari-elkarteen ordezkariekin, egoera ezagutzeko, proposamenak jasotzeko eta aldean jarrerak aztertzeko, horren bidez beharrezkoa den lankidetzaren berreskuratzeko.

– Jarraipen-mahai bat sortzeko borondatea daukagu. Toki entitateen, nekazarien, kudeaketaren titular diren barrutien eta Administrazioaren ordezkariak osatuko dute mahai hori. Finkatzeko daude haren eginkizunak, helburuak eta biltzeko maiztasuna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 29an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

Autonomia erkidegoak	LERROA	Lerroaren IZENA	SAILA	AZALERA	KALTE-ORDAINA	LURSAILAK
NAFARROA	4	Ardotarako mahatsa	2011	47,96	48.534,86	24
NAFARROA	5	Integrala, zerealena	2011	108,44	7.110,70	86
NAFARROA	7	Belarkien laborantza estentsiboa	2011	2,75	1.094,58	2
NAFARROA	11	Tomatea	2011	1,96	627,20	1
NAFARROA	43	Piperra	2011	0,57	1.192,00	1
NAFARROA	50	Azalorea	2011	0,7	3.200,00	1
NAFARROA	66	Ekilorea	2011	6,23	177,06	9
NAFARROA	67	Brokolia	2011	27,37	44.246,36	19
NAFARROA	118	Lehorreko errendimendua, A eredia	2011	511,82	28.449,57	275
NAFARROA	180	Ardotarako mahatsa	2011	5,88	1.891,55	4
NAFARROA	191	Lehorreko errendimendua, B eredia	2011	12,96	593,84	3

726,64 137.117,72 425

Autonomia erkidegoak	LERROA	Lerroaren IZENA	SAILA	AZALERA	KALTE-ORDAINA	LURSAILAK
NAFARROA	307	UDAZKEN-NEGUKO BARAZKIAK	2012	0,45	3.256,00	1
NAFARROA	309	BELARKIAK	2012	637,1	129.421,66	388
NAFARROA	312	ARDOTARAKO MAHATSA	2012	94,8	60.537,80	63
NAFARROA	317	GEREZIA	2012	0,67	1.680,00	1
NAFARROA	327	ONDOZ ONDOKO ZIKLOETAKO BARAZKIAK	2012	26,11	47.769,17	14

759,13 242.664,63 467

Autonomia erkidegoak	LERROA	Lerroaren IZENA	SAILA	AZALERA	KALTE-ORDAINA	LURSAILAK
NAFARROA	307	UDAZKEN-NEGUKO BARAZKIAK	2013	0,72	3.087,81	2
NAFARROA	309	BELARKIAK	2013	794,94	133.802,94	620
NAFARROA	312	ARDOTARAKO MAHATSA	2013	16,77	14.536,36	25
NAFARROA	315	BAZKA-LABOREAK	2013	2,88	1.555,20	1
NAFARROA	318	UDABERRI-UDAKO BARAZKIAK	2013	17,81	37.486,19	5
NAFARROA	327	ONDOZ ONDOKO ZIKLOETAKO BARAZKIAK	2013	76,05	143.715,46	66

909,17 334.183,96 719

Autonomia erkidegoak	LERROA	Lerroaren IZENA	SAILA	AZALERA	KALTE-ORDAINA	LURSAILAK
NAFARROA	307	UDAZKEN-NEGUKO BARAZKIAK	2014	12,27	20.475,54	4
NAFARROA	309	BELARKIAK	2014	1548,16	414.363,87	1581
NAFARROA	312	ARDOTARAKO MAHATSA	2014	29,69	21.005,70	30
NAFARROA	315	BAZKA-LABOREAK	2014	8,28	137,87	4
NAFARROA	318	UDABERRI-UDAKO BARAZKIAK	2014	75,47	228.910,75	65
NAFARROA	327	ONDOZ ONDOKO ZIKLOETAKO BARAZKIAK	2014	169,48	261.949,39	109

1843,35 946.843,12 1793

Autonomia erkidegoak	LERROA	Lerroaren IZENA	SAILA	AZALERA	KALTE-ORDAINA	LURSAILAK
NAFARROA	300	FRUTA USTIATEGIAK	2015	1,07	664,80	1
NAFARROA	307	UDAZKEN-NEGUKO BARAZKIAK	2015	15,82	36.657,44	4
NAFARROA	309	BELARKIAK	2015	1766,97	372.009,63	1503
NAFARROA	312	ARDOTARAKO MAHATSA	2015	36,91	29.315,72	33
NAFARROA	315	BAZKA-LABOREAK	2015	2,88	1.965,97	1
NAFARROA	317	GEREZIA	2015	0,27	998,67	3
NAFARROA	318	UDABERRI-UDAKO BARAZKIAK	2015	10,25	37.928,20	6
NAFARROA	327	ONDOZ ONDOKO ZIKLOETAKO BARAZKIAK	2015	265,44	302.173,16	123

2099,61 781.713,59 1674

Galdera, Tuteran Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuteran Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak ezartzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00139 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Gaur arte, Hezkuntza Departamentuak, eta, zehazki, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak ez du inongo jakinarazpen ofizialik jaso parlamentu-galderan planteatzen den gaiari buruz, hau da, Tuteran Nekazaritza Ingeniaritzako ikasketak ezartzeari buruz.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 4an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Sáez Barrao andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kontsumitzaileen eskubideei dagokienez “Tasa arrosa” deiturikoak daukan eragina dela-eta Nafarroako Gobernua txosten bat egitera premiatzen duen erabakiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko martxoaren 11ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak parlamentu-galdera egin du jakite aldera zenbateraino betetzen ari den Nafarroako Parlamentuaren 2015eko abenduaren 10eko Erabakia, zeinak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu, Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbi-

tzu Ganberarekin batera txosten bat presta dezan, jakite aldera ea “Tasa arrosa” –produktu beraren edo ezaugarri bertsuko produktu baten balioaren gehikuntza ulergaitza, produktu hori emakumeei zuzendua denean– existitzen den, zenbatekoa den eta kontsumitzaileen eskubideei dagokienez zer eragin duen. Honako hau da Garapen Ekonomikorako kontseilariaren informazioa:

1. Erabaki hori betetzeko, lankidetzahitzarmenen bat egin beharko litzateke Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberarekin, kasuko azterlana eta txostena egiteko. Hitzarmen horrek, arrazoizkoa denez, zenbatetsi beharko litzatekeen ekarpen ekonomikoa bat eduki beharko luke. Horretaz gainera, aztertu beharko litzateke hura nola gauza litekeen, zeren eta litekeena baita prestazio hori kontratazio publikoari buruzko legegidiaren bidez arautu behar izatea, ezin izanen baliatzateke gauzatu lankidetzahitzarmen baten bitartez.

2. Ekitaldi honetarako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ez dago inongo kontusailik txosten

hori finantzatzeko. Txostena egiteko aurrekontu-mugimendu batzuk egin beharko lirateke, zeinek zalantzarik gabe eragina izanen bailukete aurrekontuetan jada aurreikusita dauden programa eta ekintzetan, hain zuzen ere une honetan aurrera eramaten ari direnetan nahiz ekitaldian zehar eginen direnetan.

3. Horrek ez du esan nahi ez dela interesgarria horrelako azterlan bat egitea, baina ezinbestez

ezagutu beharra dago aurrekontu-ekitaldi honetan hura egiteko zailtasunak badaudela.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 28an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio diagnostikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ebaluazio diagnostikoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00141 galdera egin du. Hari erantzuteko, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak jakinarazten dio informazio hori erantsitako artxiboetan dagoela. Artxibo horiek 2016ko apirilaren 14an igorri ziren ikastetxeetara.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 6an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman.)

Galdera, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko 29 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko 29 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16/PES-00142 informazio-eskaera egin du. Hura dela eta, Nafarroako Hezkuntzako kontseilariak erantsi du Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko (NHBBZ) 29 lanpostu betetzeko deialdia egiteko proposamenean erabilitako dokumentazioa. Hori guztia apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz, horren bidez arautzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura.

Hizkuntza eskakizuna ezartzeko irizpideak.

37/2014 Foru Dekretuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen du.

3. artikulua Hezkuntza Departamentuaren mendeko irakasleei laguntzeko zentroetako eta baliabide zentroetako lanpostuak zerbitzu eginkizunetan betetzeko araubideari buruzkoa da. Zehazki, 3. eta 4. idatz-zatietan, lanpostu horien iraupena eta iraungitzea ezartzen dira. Aldi hori iraganda, lanpostu horiek betetzeko beste deialdi bat egin beharko da.

Horrenbestez, departamentu honetako Giza Baliabideen Zerbitzuak emandako informazioari jarraituz, betetzeko dauden 29 lanpostu horien deialdia egin beharko da.

Aurreko deialdietako esleipen-irizpideak eta hizkuntza eskakizunak kontuan hartuta, antzeko ildo batetik joko dugu. Joan den ikasturtean, deitutako lanpostuen % 35 euskarazkoak izan ziren; deialdi honetako irizpidea antzekoa izanen da.

Horrela, joera bati eusten zaio, alegia, NHBBZko lantalde bakoitzeko pertsona batek euskarazko profila izatea, D ereduko ikastetxeek baliabideen zentroari egiten dizkioten eskakizunei erantzuna emateko. Gure erkidegoan ikasleen % 30 daude matrikulatuta eredu horretan, eta txostenak, lanak, materialak eta abarrekoak euskaraz bidaltzen zaizkie eredu horretako ikastetxei; horrenbestez, aurkezten diren berariazko esparrua menderatzeaz gainera hura aipatutako hizkuntzan garatu ahal izanen duten pertsonak eduki behar dira.

Zuzendaritzako lanpostuari dagokionez, lehenengo segurtatu beharko da berariazko baliabideen zentro bat kudeatzeko gaitasuna daukala eta, gainera, A, G eta D ereduetako ikasleak dituzten ikastetxeetan gertatzen den bezala, zuzendaritzako kide batek euskarazko profila daukala.

NHBBZk pertsona bakarreko zuzendaritza-organo bat dauka; hori dela eta, lanpostu horretarako deialdian euskara eskatu dugu.

Bestalde, NHBBZri buruzko araudi indarduna 1993koa da. Zehazki, martxoaren 1eko 76/1993 Foru Dekretua da ikastetxe horretan indarra duena. Zerbitzuaren burutza honen helburua da legegintzaldi honetan zehar dekretu hori berrikus-tea, eta, zehazki, kide anitzeko zuzendaritza bat eduki dezala bermatzea, halako moduz non zuzendaritza-talde horretan gutxienez ere pertsona batek euskarazko profila izanen duen.

Zentroa bi hizkuntza ofizial dauden erkidego batean dagoenez, gure ustez lanpostu-banaketa horrek erkidegoko ikasle guztien arreta segurtatzen du.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Lanpostuen banaketa.**I. ERANSKINA
BERARIAZKO BALDINTZAK**

Lanpostua	Lantaldea	Baldintzak
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea euskaraz)	NHBBZko zuzendaritza	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean
		EGA titulua edo parekidea edukitzea
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea)	Laguntza goiztiarra	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea euskaraz)	Laguntza goiztiarra	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean
		EGA titulua edo parekidea edukitzea
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea)	Jokabidea	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea euskaraz)	Gaitasun handikoen esparrua, Jokabide taldearen barruan	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean
		EGA titulua edo parekidea edukitzea
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea)	Mugimendu-desgaituak	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea)	Hizkuntzaren esparrua, Psikikoen taldearen barruan	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea)	Psikikoak	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean

Lanpostua	Lantaldea	Baldintzak
euskaraz)		EGA tituluak edo parekidea edukitzea
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea)	Ikusmenekoak	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (eskola orientatzailea)	Entzumenekoak	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea, Hezkuntza-orientazioaren espezialitatean
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea	Hezkuntza premietarako laguntza	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea.
Bigarren Hezkuntzako katedraduna edo irakaslea (euskara)	Hezkuntza premietarako laguntza	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Bigarren Hezkuntzako Katedradunen edo Irakasleen Kidegokoa izatea.
		EGA tituluak edo parekidea edukitzea
Lanbide Heziketako irakasle teknikoa (Komunitatearentzako zerbitzuak), Tuterarako	Komunitatearentzako zerbitzuak	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegokoa izatea eta Komunitatearentzako zerbitzuen espezialitateko titularrak izatea
Maisu-maistra	Hezkuntza premietarako laguntza	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa edo Entzumena eta Hizkuntza)	Dokumentazioa eta Teknologia Berriak. Teknologia Berrien arlorako	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edo Entzumena eta Hizkuntza espezialitatea edukitzea
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa edo Entzumena eta Hizkuntza euskaraz)	Dokumentazioa eta Teknologia Berriak	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edo Entzumena eta Hizkuntza espezialitatea edukitzea
		EGA tituluak edo parekidea edukitzea
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa)	Ospitaleko etxeko laguntza eta	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edukitzea
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa)	Laneratzea	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edukitzea

Lanpostua	Lantaldea	Baldintzak
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa euskaraz)	Laneratzea	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edukitzea
		EGA titulu edo parekidea edukitzea
Maisu-maistra (Entzumena eta Hizkuntza euskaraz)	Entzumenekoak	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Entzumena eta Hizkuntza espezialitatea edukitzea
		EGA titulu edo parekidea edukitzea
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa euskaraz)	Gaitasun handikoen esparrua, Jokabide taldearen barruan	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edukitzea
		EGA titulu edo parekidea edukitzea
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa)	Jokabidea	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edukitzea
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa euskaraz)	Jokabidea	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edukitzea
		EGA titulu edo parekidea edukitzea
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa)	Ikusmenekoak	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edukitzea
Maisu-maistra (Pedagogia Terapeutikoa euskaraz)	Ikusmenekoak	Hiru urteko irakasle esperientzia edukitzea, karrerako funtzionario gisa, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean
		Maisu-maistren Kidegokoa izatea eta Pedagogia Terapeutikoko espezialitatea edukitzea
		EGA titulu edo parekidea edukitzea

Galdera, Irakasleentzako Laguntza Zentroko 6 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Irakasleentzako Laguntza Zentroko 6 lanpostu merezimendu-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00143 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Irakasleentzako laguntza zentroetan (ILZ) 2012an egin zen berrantolaketa muturrekoaren ondoren, non aholkularien kopurua ia erdira jaitzi baitzen, honako hau da deialdi bidez bete daitezkeen lanaldi osoko aholkularien egungo zerrenda:

- Lizarra: Zuzendari bat eta teknologia berrietako aholkulari bat
- Lekaroz: Zuzendari bat eta teknologia berrietako aholkulari bat
- Iruña: Zuzendari bat, haur eta lehen hezkuntzako hiru aholkulari, bigarren hezkuntzako 4 aholkulari eta teknologia berrietako 2 aholkulari
- Tafalla: Zuzendari bat eta teknologia berrietako aholkulari bat
- Tuterako: Zuzendari bat, aholkulari bat eta teknologia berrietako aholkulari bat

Lanpostu horietatik guztietatik, bete gabe daude Lekarozko eta Tafallako zuzendaritzak, Iru-

ñeko haur eta lehen hezkuntzako 2 aholkularitza, Iruñeko bigarren hezkuntzako aholkularitza bat, Iruñeko teknologia berrien aholkularitza bat eta Tuterako aholkularitza. Gainerako lanpostu guztiak aurreko deialdietan bete ziren.

Gure ustez, ILZetako aholkularien egonkortasuna funtsezkoa da zerbitzuaren kalitatea hobetzeko; hori dela eta, irizpide horri jarraituz, deitzeko falta zireen lanpostu guztien deialdia egin da, Iruñeko teknologia berrien arloko aholkularitza izan ezik. Gainera, uste dugu gaur egun Hezkuntza Departamentuak dauzkan aholkulari-lanpostuak oraindik ere ez direla nahikoak Nafarroako irakasleen prestakuntza-beharrei erantzuna emateko, eta ILZak pixkanaka handitze joan beharko direla datozen ikasturteetan zehar.

ILZetako aholkulari-lanpostuak betetzeko aurreko deialdietako bakarrean ere ez da euskararen baldintza eskatu eremu euskalduneko eta mistoko D ereduko ikastetxeetan euskarazko arreta bermatzeko behar den kopuruan. Hori dela eta, eremu horietarako, Lekarozen eta Iruñean, deitu diren lanpostuetan, beharrezkotzat jo dugu euskara baldintza gisa eskatzea. Horrela, ILZ horietan, euskaraz dakiten aholkularien kopurua, zuzendaritzak barne, % 100ekoa izanen da Lekarozen (eremu euskalduna) eta % 50ekoa Iruñean (eremu mistoa).

Gainerako lanpostuetan, Tafallakoan eta Tuterakoan, ez da euskara baldintza gisa eskatu, nahiz eta une hauetan ILZ horietan euskaraz dakien aholkulari bakarra ere ez dagoen, ez eta Lizarrako ILZn ere, non euskararen eskakizuna ezarrita duen, eta horrekin gertatzen dena da eremu horietako D ereduko ikastetxeetan ezin dela arreta euskaraz eman.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapen Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00144 parlamentu-galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2015/2016 ikasturtean zehar, Hezkuntzako Ikuskapenaren Zerbitzuak hiru ebaluazio eginen ditu, hezkuntza-maila desberdinetan. Honako hauek dira ebaluazio horiek:

Lehen hezkuntzako 3. mailan, zentsuaren araberako ebaluazioa.

Lehen hezkuntzako 6. mailan, zentsuaren araberako ebaluazioa.

Bigarren Hezkuntzako 2. mailaren ebaluazioa.

Lehen hezkuntzako 3. mailan, zentsuaren araberako ebaluazioa.

2016ko apirilean, Hezkuntza Departamentuaren webgunean gaitasun-probak lehen hezkuntzako ikastetxe guztien eskura jarri dira: hizkuntza-gaitasuna (irakurmena eta testu-ekoizpena, gaztelaniaz edo euskaraz, hizkuntza ereduaren arabera); matematika gaitasuna (kalkulua, buruketak arrazoitu eta ebaztea), eta ingelesezko hizkuntza gaitasuna.

Ikastetxeek autonomia izanen dute horiek aplikatzeko eta egokitzeko (zabaltzea, egokitzapen metodologikoak eta abar), egutegia, zuzenketa, emaitzen analisia eta abar. Datuak ez dira Educa aplikazio informatikoan sartuko. Ikastetxeek erabaki guztiak hartuko dituzte kontuan hartuta ebaluazio honek izaera hezitzaile eta orientatzailea duela, eta ikastetxean garatzen diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan txertatuko dituzte.

Hobekuntza planaren barruan, ikastetxeek erabakiko dute, halaber, nolako tratamendua eman

ikasleek ebaluazio horretan lortutako emaitza orokorreari, eta, kasuko gogoeta egin ondoren, hobekuntza-ildoak planteatuko dituzte.

Lehen hezkuntzako 6. mailan, zentsuaren araberako ebaluazioa.

Maiatzean zehar, lehen hezkuntzako ikastetxeei gaitasun probetarako buruzko liburuxkak helaraziko zaizkie: hizkuntza-gaitasuna (irakurmena eta testu-ekoizpena, gaztelaniaz edo euskaraz, hizkuntza ereduaren arabera; horretaz gainera, B/D ereduak ikasleentzat, gaztelaniazko irakurmena); matematika gaitasuna (kalkulua, buruketak arrazoitu eta ebaztea), eta ingelesezko hizkuntza gaitasuna. Probak zuzendu ondoren, ikastetxeek emaitzak Educa plataforman sartuko dituzte, eta ekainean zehar, plataforma horretatik, ikastetxeek ikasleei banakako txostenak eta ikastetxeari buruzko txostena deskargatu ahalko dituzte. Ikastetxeek kontuan hartuko dute ebaluazio honek izaera hezitzaile eta orientatzailea duela, eta ikastetxean garatzen diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan txertatuta dagoela.

Gainera, Hezkuntza Departamentuaren webgunean zientzia-gaitasunari buruzko proba jarriko da ikastetxeen eskura. Horren aplikazioan askatasuna izanen dute ikastetxeek.

Bigarren Hezkuntzako 2. mailaren ebaluazioa.

Hezkuntza Departamentua 2008/2009 ikasturte-tik egiten aritu den ebaluazioa da. Maiatzean zehar, bigarren hezkuntzako ikastetxeei gaitasun probetarako buruzko liburuxkak helaraziko zaizkie: hizkuntza-gaitasuna (irakurmena, gaztelaniaz edo euskaraz, hizkuntza ereduaren arabera; horretaz gainera, B/D ereduak ikasleentzat, gaztelaniazko irakurmena); matematika gaitasuna (kalkulua, buruketak arrazoitu eta ebaztea); zientzia-gaitasuna, eta ingelesezko hizkuntza gaitasuna. Probak zuzendu ondoren, ikastetxeek emaitzak Educa plataforman sartuko dituzte, eta ekainean zehar, plataforma horretatik, ikastetxeek ikasleei banakako txostenak eta ikastetxeari buruzko txostena deskargatu ahalko dituzte. Aurreko ebaluazioetan bezala, ikastetxeek kontuan hartuko dute ebaluazio honek izaera hezitzaile eta orientatzailea duela, eta ikastetxean garatzen diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan txertatuta dagoela.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Galdera, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuko Ebaluazio Zerbitzuak egindako ebaluazioei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko apirilaren 18ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN parlamentu-taldeak 9-16-PES-00145 informazio-eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

2016ko maiatzaren 4an, Ingeleseztan Ikasteko Programetako (PAI eta British) ebaluazio-prozesuaren bi atal amaituta zeuden, eta hirugarren bat oraindik ere bidean zegoen.

Horieta lehenengoan, INFO PAI, programa horiek dauzkaten ikastetxeei buruzko datuak bildu dira. Bildutako informazioa sistematizatzeko diseinatu den tresna nagusia ikastetxearen fitxarena da, non ikastetxe bakoitzari buruzko datuak jasotzen baitira honako atal hauen arabera:

LANGILEAK

- Hizkuntzetako titulazioa

IKASTETXEAREN TAMAINA

HIZKUNTZEN PROIEKTUA: PAI

- Ikasmilaren eta hizkuntzaren arabera-ko ikasgaiak
- Zein urtetan ezarri den

Aldi berean, ikastetxearen fitxen osagarri gisa, honako puntu hauei buruzko informazioa bildu eta sistematizatu da:

1. EZARPEN PROZESUA

- 1.1 Programaren eskaria eta onarpena
- 1.2 Ingeles Atalak egiten duen plangintzaren azterketa
- 1.3 Ezarpenerako egutegia

2. PROGRAMAREN EGUNGO EGOERA

- 2.1 Haur hezkuntzako bigarren zikloa eta lehen hezkuntza
- 2.2 DBH
- 2.3. Irakasleen egoera
- 2.4 Ikastetxeko fitxak

3. PROGRAMAREN DISEINUA

- 3.1 Sarrera
- 3.2 Irakaskuntzen antolaketa
- 3.3 Ikastetxearen hizkuntza proiektua

Ebaluazio prozesuaren bigarren atala, DIS-PAI deitu duguna, berriki argitaratu da Hezkuntza Departamentuaren webgunean eta hezkuntza munduko sektore guztien eskura dago, azter dezaten, honako helbide honetan:

<https://www.educacion.navarra.es/documentos/27590/559378/DISPAI+2016.pdf/dae196af-184d-4375-909e-4792659d821f>

Atal horretan, informazioa, datuak, taldeko eztabaidak eta iritzi partikularrak jasotzen dira Ingeles Ikasteko Programari buruzko azterlan soziologikoari buruz: bi inkesta desberdin PAI duten eta ez duten ikastetxeetako zuzendariak, eta honako eztabaida talde hauek: PAI duten ikastetxeetako zuzendarienera, PAI duten eta ez duten ikastetxeetako irakasleena eta PAI duten ikastetxeetako gurasoena.

ATALAK:

Ingeleseztan programak (PAI/BRITISH) dituzten ikastetxeetako zuzendariak

Inkestak (ikastetxe guztietan, 106 ikastetxeetan)

Eztabaida taldeak (18 ikastetxetakoak)

Ingeleseztan programarik (PAI/BRITISH) ez duten ikastetxeetako ZUZENDARIAK

Inkestak (133 ikastetxetatik 50ean)

IRAKASLEAK

Eztabaida-taldeak (31 ikastetxe, 35 pertsona)

GURASOAK

Eztabaida-taldeak (45 ikastetxe + CERMIN, 52 pertsona)

Kontua da iritzi pertsonalak jasotzea, ingelesezko sasi-murgiltze programei buruzko honako

gai interesgarriari buruzko eztabaidan argia eman dezaketenak eta eztabaida bera piztu dezaketenak:

- Programa ikastetxeetan ezartzea.
- Programa ikastetxeetan hedatzea.
- Programak ikastetxeetan egun duen egoera.
- Programa dela-eta sortutako itxaropenak.
- Kolektiboen gogobetetasun maila.
- Programaren funtzionamendua.
- Puntu sendoak eta hobetu beharreko arloak.
- Jasotako informazioa eta prestakuntza.

Azterlanaren hirugarren atala, ECD PAI deitu duguna, oraindik ere ezartzeko dago. Honako hau da programa horien egitura: alde batetik, British edo PAI programetan ikasten ari diren lehen hezkuntzako 6. mailako ikasle guztien ingelesezko hizkuntza gaitasunaren berriazko ebaluazio diagnostikoaren azterlanaren lehenengo fasea egiten da, bai eta zientzia-gaitasunaren jarraipena ere.

Helburua da ikasleek programa horietan lortutako ingeles mailari buruzko lehenengo neurketa bat egitea eta zientzia-gaitasunaren garapen graduaren jarraipena egitea. Azterlan horretan, British edo PAI programak dituzten ikastetxeek gainera, kontrol-ikastetxeen lagin batek ere hartuko du. Ebaluazioaren, Kalitatearen, Prestakuntzaren eta Bizikidetzaren Zerbitzua da orain arte aipatutako ebaluazioaren hiru zatiak garatu, aplikatu, zuzendu, analizatu eta emaitzen zabalpena egiteko ardura duena.

Bestalde, zentsuaren bidez, matematika-gaitasunaren eta gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko gaitasunaren ebaluazio diagnostiko bat egiten da, prestakuntza-izaerarekin eta ikastetxeetan egiten diren ebaluazio berekien osagarri. Ikuskapen Zerbitzua da ebaluazio diagnostiko hori garatu, aplikatu, zuzendu, analizatu eta emaitzen zabalpena egiteko ardura duena.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 9an.

Hezkuntzako Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

